

**I. XEDAPEN OROKORRAK****ESTATUKO BURUZAGITZA**

**11677** *15/2021 Errege Lege Dekretua, uztailaren 13koa, Sektore publikoko entitate jakin batzuek Espainiako ondare historikoa osatzen duten ondasun higigarrien bildumak errentan hartzea arautzen duena eta kultura- eta kirol-arloko presako beste neurri batzuk onartzen dituena.*

I

Espainiako Konstituzioaren 46. artikulua ezartzen duenez, botere publikoek bermatuko dute Espainiako herrien ondare historiko, kultural eta artistikoa zaindu eta aberastea, bai eta ondareon ondasunena ere, horien araubidea eta titulartasuna edozein izanda ere.

Aurreikuspen hori betez, sektore publikoak kultura-ondasunak eskuratzeko politika bat garatu du, funtsezko bi helbururekin: batetik, kultura-ondarea kontserbatzea eta babestea, eta, bestetik, handitzea. Era berean, eskuraketak egitean, ondarea berreskuratzeko eta zaintzeko lana hartzen da kontuan, bai eta kultura-erakunde bakoitzaren jarduera-ildo espezifikoak ere. Aldi berean, ildo horien helburu nagusia bildumen hutsunea betetzea edo lehendik dauden bildumen prestigioari eustea da.

Espainiako Ondare Historikoaren ekainaren 25eko 16/1985 Legeak eskuraketa horiek egiteko tresnak arautzen ditu, eta, horien artean, lehentasunez eskuratzeko eskubideak nabarmentzen dira; besteak beste, tanteoa, atzera eskuraketa eta salmenta-eskaintza ezeztatzina. Doako eskuraketak ere jasotzen dira, izan dohaintzak, jaraunspenak edo legatuak, edo zerga-zorrak gauzatan ordaintzea, Espainiako ondare historikoa osatzen duten ondasunak entregatuz, baldin eta Kultura Intereseko Ondasunen Erregistro Orokorrean inskribatuta badaude edo Inbentario Orokorrean sartuta badaude.

Era berean, kultura-ondasunak eta, zehazki, Espainiako ondare historikoa osatzen duten ondasun higigarriak jasotzeko mekanismo garrantzitsuenetako bat, Administrazioaren zuzeneko eskuraketa, hornidura-kontratutzat hartu izan da kontratu publikoen legerian. Hala ere, gaur egun, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (zeinaren bitartez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora) aurreikusten du Espainiako ondare historikoa osatzen ez duten ondasunak soilik eskuraketa publikoaren bidezko prozedura negoziatuaren bidez, eta araudi espezifikoari jotzen du hor sartzen direnentzat.

Orain, mota honetako ondasunak jasotzeko beste modalitate bat arautu behar da, errentamendua hain zuzen ere; izan ere, orain arte, ez zen inolako araubide espezifikorik aurreikusten kasu horretarako. Erregulazio hori egoera jakin honetara mugatzen da: administrazio publikoen kategoriakoak ez diren botere esleitzzaileek Espainiako ondare historikoko ondasun higigarrien bildumak errentan hartzea, betiere oreka egokia lortu nahian ezarri diren prozedura-simplifikazioaren eta -berezitasunen eta aplikazio-eremuaren artean. Hala, bere irismena ez da obra soil batera edo zenbait obratarara hedatzen; aitzitik, benetako bilduma bat izan behar du, aparteko interesa duena, organo kualifikatu batek hala hautemanda; hain zuzen ere Espainiako Ondare Historikoko Ondasunen Kalifikazio, Balorazio eta Esportazio Batzordeak hala hautemanda. Era berean, eta kontratu horien konfigurazioa ikusita, administrazio publikoak ez diren botere esleitzzaileek baino ezin izango dute araubide honetara jo. Haien hornidura-kontratuak, tartean errentamenduak, kontratu pribatutzat hartzen dira.

Beste alde batetik, kulturaren sektoreari eta kirolari laguntzeko neurri osagarri batzuk ere hartu behar dira. Lehenik eta behin, Carmen Thyssen-Bornemisza bildumari Estatuaren bermea aitortu behar zaio, ekainaren 25eko 16/1985 Legearen

bederatzigarren xedapen gehigarrian aipatzen den bezala. Horrela, behin errentamendua formalizatuta, hala badagokio, hura osatzen duten obrek aseguru-araubide berezi hori izango dute, eta aukera egongo da haien suntsitzearen, galtzearen, lapurtzearen edo kaltetzearen ondoriozko arriskuak estaltzeko, Thyssen-Bornemisza Museo Nazionalaren instalazioetan dauden bitartean. Modu horretan, behar bezala aseguratzeko da, bildumaren beraren entitatearekin bat etorritik, eta bermearen baldintzak urtero eguneratzeari kalterik egin gabe.

Era berean, kirolaren eremuan, argitu egiten da zer irismen eta araubide izango dituzten Espainiako Futboleko Errege Federazioari (RFEF), Estatu-mailako lehiaketak eta lehiaketa ez-profesionalak antolatzen dituen entitate gisa, esleitutako ikus-entzunezko eskubideak modu bateratuan merkaturatzeko ahalmen berriek. Ahalmen horiek apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuan sartu ziren (5/2015 Errege Lege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Futbol profesionaleko lehiaketen ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzearekin loturiko urgentziatzeko neurriena), Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriaren arabera. Hala, ezinbestekoa da indarrean dagoen araudia doitzea, RFEFk, entitate antolatzailea den aldetik, esleituta dituen merkaturatze-ahalmen horiek eraginkortasun osoz gauzatu ahal izan ditzan.

## II

Errege lege-dekretuak 3 artikulua eta 3 azken xedapen ditu.

1. artikulua xedapen gehigarri berri bat sartzen du ekainaren 25eko 16/1985 Legean, administrazio publikotzat hartzen ez diren botere esleitzailak Espainiako ondare historikoa osatzen duten eta aparteko interesa duten ondasun higigarrien bildumak errentan hartu ahal izatea arautzeko; Espainiako Ondare Historikoko Ondasunen Kalifikazio, Balorazio eta Esportazio Batzordeak hautemango du aparteko interes hori.

Kontratu horiek, zenbait berezitasunekin, azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez egin ahal izango dira, betearazpena enpresaburu jakin bati bakarrik agindu ahal zaion kasuei dagokienez. Berezitasun horien artean, nabarmentzekoa da administrazio-klausula partikularren agiriaren ordez kontratuaren klausulak jartzeko aukera, edo kaudimena egiaztatzekoa. Era berean, ondasunak titular bat baino gehiagorenak badira, aukera ematen da guztiek batera parte har dezaten lizitazioan, enpresaburu elkarte bat eratu beharrik gabe.

Gainera, kontratuaren jarraitutasuna eta egonkortasuna bermatzeko, ez da aplikatuko horniduretarako orokorrean ezartzen den 5 urteko gehieneko iraupena. Bestalde, aurrekoaren ondorioz, eta azaldutakoarekin bat etorritik, kontratuaren xedea eta ezaugarriak ikusita, prezioak berrikusteko araubide arrunta ere salbuetsi behar da, baita ordainketa- eta betearazpen-baldintzak ere. Era berean, batzorde misto bat gehitzen da, kontratuaren ondorioei eta azkentzeari buruzko eztabaidak ebazteaz arduratuko dena, balizko desadostasunak auzibidera jo gabe konpon daitezkeen saiatuz.

Bestetik, 2. artikulua Estatuaren bermea aitortzen dio Carmen Thyssen-Bornemisza bildumari, ekainaren 25eko 16/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian aipatzen den bezala. Aseguru-araubide kualifikatu hori errentamendu-kontratua formalizatzen den egunean hasiko da, eta, oro har, indarrean dagoen bitartean luzatuko da. Konfigurazioan, ekainaren 22ko CUD/664/2021 Agindua hartzen da erreferentziatzat. Agindu horren bidez, Estatuaren bermea ematen zaie 425 obrari, Thyssen Bornemisza Museo Nazionaleko bilduma iraunkorrean erakuts daitezkeen. Hain zuzen ere, bilduma horrek Carmen Thyssen-Bornemisza bilduma osatzen duten ia lan guztiak biltzen ditu. Gainera, arau espezifikoak ezartzen dira agindu horretan jaso ez baina aurreko beste agindu batzuetan bai jaso direnentzat, edo aurretik Estatuaren estaldurarik izan ez dutenentzat. Bermeak estalitako obren balio ekonomikoa, bai eta obra zehatzak ere, eta bermearen norainokoa, ondorioak, baldintzak eta mugak, urtero eguneratuko dira Kultura eta Kiroleko ministroaren agindu baten bidez.

Azkenik, 3. artikulua aldatu egiten du apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua, eta argitu egiten ditu aplikatu beharreko arauak eta prozedurak, RFEFk, Estatu-mailako lehiaketak eta lehiaketa ez-profesionalak antolatzen dituen entitatea den aldetik, ikus-entzunezko eskubideak modu bateratuan merkaturatzeko. Horretarako, Estatu-mailako futbol-lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenek nahitaez laga beharko dituzte errege lege-dekretu honen aplikazio-eremuan sartutako ikus-entzunezko eskubideak modu bateratuan merkaturatzeko ahalmenak. Era berean, Ligako Txapelketa Nazionalen parte hartzen duten entitateen betebeharrak dagokienez, zehazten da zein izango diren futbol amateur eta federazio-azpiegiturak garatzeko eta kategoria ez-profesionalen lehiakortasuna hobetzeko ekarpen solidario gisa ematen diren funtsen hartzaileak eta helburuak. Era berean, RFEFk antolatutako Estatu-mailako lehiaketen ikus-entzunezko eskubideen merkaturatzeetik lortuko diren diru-sarrerak banatzeko moduari heldu zaio, eta argitzen da Superkopatik datozen diru-sarrerak futbol amateur sustatzera bideratuko direla. Halaber, beste lehiaketa batzuetako baliabideak banatzeko irizpideak sartzen dira: horiek lehiaketa bakoitzean parte hartzen duten klub edo entitateei esleituko zaizkie, entitate horiek berek onartzen dituzten irizpideen arabera, gehiengoz eta merkaturatze-aldi osorako, RFEFk horretarako sortutako berariazko organoen esparruan.

Azken xedapenei dagokienez, lehenengoa testua emateko eskumen-tituluari buruzkoa da. Bigarrenak, bestetik, erregelamenduaren garapenerako gaikuntza jasotzen du, eta, azkenik, azken xedapenetako hirugarrenak zehazten du errege lege-dekretua noiz jarriko den indarrean.

### III

Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake «aparteko eta presazko beharrezko dagoenetan», baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarriko erakundearen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Konstituzioaren arabera, errege lege-dekretua bidezko tresna da, baldin eta, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu duen bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria; 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria), presako legegintza justifikatzen duen helburua gobernu-helburuen barruan egoera zehatz bati erantzutea bada, eta egoera horrek aurrez ikusten zailak diren arazoengatik araudia berehala ematea eskatzen badu, esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioaren presazko prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Kasu honetan, alde batetik, Carmen Thyssen-Bornemisza bilduma osatzen duten artelanen egoerak eta etorkizunean horien errentamendua kontratatzeak justifikatu egiten dute hori gauzatzeko behar den araubide juridikoa ezartzeko aparteko eta presazko beharrezko dagoena.

Lehenik eta behin, kontuan izan behar da Carmen Thyssen-Bornemisza bilduma zenbateraino den garrantzitsua, Thyssen-Bornemisza bildumatik bertatik abiatuta. 1988ko apirilean, Thyssen-Bornemisza baroiak eta Estatuak akordioa sinatu zuten: baroiaren bildumako 775 obra bederatzi urte eta erdirako lagatzeko akordioa zen hura, etorkizunean eskuratu ahal izateko asmoz. Gainera, bilduma kudeatzeko fundazio bat sortu zen, eta Villahermosa jauregia birmoldatu zen, bilduma han izateko.

Azkenik, 1993an eskuratu zen, Thyssen-Bornemisza bilduma eskuratzeko kontratua arautzeko neurri buruzko ekainaren 18ko 11/1993 Errege Lege Dekretua onartu ondoren.

Antzinako Maisuen ia bilduma osoa eskuratu zen, bai eta Maisu Modernoen bildumaren erdia baino gehiago ere. Horiek guztiak Thyssen-Bornemisza Museo

Nazionalaren Bilduma Iraunkorrean sartu ziren. Gainerako margolanak baroiak banatu zituen bere oinordekoen artean, Estatuak behin betiko erosketa sinatu ondoren.

Banatutako obren artean, August Thyssenek mende hasieran Auguste Rodini erositako marmolezko zazpi multzoetatik lau sartu ziren Carmen Thyssen-Bornemisza bilduman. Pinturei dagokienez, 125 ziren guztira, eta, horietatik bostena, XVII. mendeko pintura flandestarreko eta holandarreko antzinako maisuena eta margolari vedutista italiarra zen. Fragonarden mihise delikatu batek ixten zuen multzoa. Artelan hura Thyssen-Bornemisza baroiaren gogokoenetakoa izan zen, haren bizialdiko azken urteetan. Gainerako margolanak XIX. mendekoak eta XX. mendeko lehen herenekoak ziren. Lehenengo multzoaren barruan, XIX. mendeko paisaia-pintura amerikarreko eta paisaia-pintura errealista frantses zein britainiarreko obrak sartzen dira, bai eta inpresionismoko eta postimpresionismoko lanak ere. Multzo horretako lanak Thyssen-Bornemisza Bilduma Museo Nazionalarenak baino ugariagoak dira. XX. mendeko koadroen artean, espresionismo alemanak osatzen zuen atal nabarmenenetakoa bat, eta Picassoren eta Juan Grisen lanek ixten zuten multzoa.

Gerotik, Carmen Thyssen-Bornemisza bilduma XIX. mendeko eta XX. mendearen hasierako pintura espainiarra eskuratzea eta sustatzea bideratu da nagusiki, baina nazioarteko pinturari eskainitako bilduma ere nabarmen handitu zuen. Laurogeita hamarreko hamarkadan, Simone Martiniren koadro bikain bat eskuratu zuen, bai eta, aldi berean, XVII. mendeko pintura holandarreko, XVIII. mendeko pintura frantseseko eta vedutisten obra gehiago ere. Baina, batez ere, bilduman oso modu nabarmenean handitu zuen XIX. mendearen erdialdeko paisaia-pintura naturalistaren eta mende hasierako korrante espresionisten arteko tartean kokatutako obren presentzia.

Hori guztia dela eta, Carmen Thyssen-Bornemisza bilduma ezinbesteko osagarria da Thyssen-Bornemisza Museo Nazionalaren Bilduma Iraunkorrerako. Gaur egun, bilduma hori museoan bertan dago, 2002ko otsailaren 15ean sinatutako eta ondoz ondo luzatutako doako mailegu-kontratu bati esker. Ondorioz, bildumako obrak Thyssen-Bornemisza Bilduma SPF Fundazioan geratu dira, eta, modu horretan, Estatu-mailan eta nazioartean duten zabalkundea bermatzen da.

Hala ere, indarrean dagoen luzapena 2021eko uztailaren 15ean amaituko da, eta bildumaren titularrek obrak erretiratzeko arriskua dago, obra horiek modu egonkorrean erakusteko akordioarik lortzen ez bada. Horretarako, dagokion errentamendu-kontratua egin beharko litzateke.

Horrek agerian uzten du premiazkoa dela behar diren bitartekoak artikulatzea, hartara ziurtatu ahal izateko, oraingo luzapena amaitu aurretik, Espainiako ondare historikoak segitu ahal izatea Carmen Thyssen-Bornemisza bildumaren kalitatea eta ospea duten artelan batzuek gozatzeko, behar diren berme guztiekin, betiere.

Obra horiek Espainian jarraituko dutela bermatzeko, beharrezko araubidea ezarri behar da, aukera egon dadin obra-multzo hori kultura-ondarean sartzeko, modu egonkorrean eta dagokion segurtasun juridikoarekin. Epe luzeko errentamenduaren bitartez, jarraipena emango litzaioke Thyssen-Bornemisza bildumaren hasierako eskuraketari, eta osatu egingo litzateke. Eskuraketa hori 1993an egin zen, eta, modu horretan, sendotu egin zen Thyssen-Bornemisza Bilduma SPF Fundazioaren balioa, nazioarteko museoaren eremuan garrantzi handia duen kultura-erakunde gisa.

Bigarrenik, eta ildo beretik, jardun horrek Espainiako kultura-ondarea indartzen du. Ondare horren babesa, kontserbazioa eta ezagutza hobetzeak mesede egingo dio kultura-turismoari, eta, beraz, baita jarduera ekonomikoari ere.

Izan ere, kultura turismo-sektorearen eragile argia da. Kontuan hartu behar dira COVID-19aren pandemiaren aurreko datuak, non ikusten baita kultura-turismoa dela azken bost urteetan gehien hazi den turismo mota. Espainiako Turismoaren Kontu Satelitearen (EIN) arabera, sektore horrek BPGari egindako ekarpena % 12tik gorakoa da eskuragarri dagoen azken hiru urtekoan. Turismo-estatistika ofizialen, Egoiliarren Turismoaren Inkestaren (EIN) eta Gastu Turistikoaren Inkestaren (EIN) ustiapen espezifikoak ateratako datuek erakusten dute kultura dela aisialdian, denbora librean edo oporretan egindako bost bidaiatik baten arrazoi nagusia, bai Espainian bizi direnek

egindako bidaien kasuan (mota horretako bidaien % 17 kultura-bidaiak izan ziren 2019an), bai nazioarteko turisten sarrerren kasuan (urte horretako sarrerren % 19,8 kulturarekin erlazionatuta zeuden). Oro har, 2019an, 30 milioi bidaiatik gora mobilizatu zituen kulturak, 24.433,4 milioi euroko gastu osoarekin: 9.085,4 milioi euro Espainiako egoiliarrei dagokienez, eta 15.348 milioi euro nazioarteko turisten sarrerei dagokienez. Kulturak edo aisiak eragindako bidaiak ez badira ere, aipatutako turismo-iturrien arabera, bidaiak askotan egin ohi dira kultura-jarduerak. Zehazki, egoiliarren bidaiak guztien % 24,6an eta atzerritarren sarrerren % 36,9an, kultura-jarduerak erregistratzen dira, eta horren barruan daude bisita kulturalak, ikuskizunak eta kulturari lotutako bestelako jarduerak. Kultura-jardueren barruan, bisita kulturalen tasa handiagoak ikusten dira: % 74,5koa, egoiliarren bidaien kasuan; eta % 91,5koa 2019an, atzerritarren sarreretan.

Thyssen-Bornemisza Museo Nazionalaren kasuan, 2019an 1.034.872 bisitari izan zituen, 2018an baino % 11,5 gehiago. Hazkunde horren jarraipena bermatzeko eta kultura-turismoa eta ekonomia bera suspertzen laguntzeko, pandemiaren unerik gogorrenak gainditu ondoren, ezinbestekoa da egonkortasuna ematea Carmen Thyssen-Bornemisza bildumaren presentziari, erakundearen kohesioa, batasuna eta kalitatea bermatzeko funtsezko elementu gisa.

Beraz, kontratua egitea (eta, horrekin batera, Estatuak bildumako artelanei emandako bermea aitortzea) ondare historikoa babesteko, sustatzeko eta aberasteko politika kulturala baino harago doa, kontuan hartuta politika horrek, berez, aparteko eta presako neurriak ezartzea justifikatuko lukeela. COVID-19ak eragindako egoera dela eta, neurri ekonomiko eta sozial jakin batzuk onartu dira; neurri horien bitartez, larrialdiari osasunerantzun egokia emateaz gain, familia, langile eta gizatalde kalteberen babesa bermatzen da, eta ekoizpen- eta gizarte-ehunari eusten zaio, ondorioak txikiagotuz eta jarduera ekonomikoa lehenbailehen suspertzen lagunduz.

Hala, Carmen Thyssen-Bornemisza bildumaren presentziaren bitartez, Thyssen-Bornemisza Museo Nazionala sendotzen da, eta, horrela, museoaren posizioa eta bisitariak erakartzeko gaitasuna indartu nahi dira. Azken batean, kultura-turismoaren figura bera sendotzen da, sektoreak BPGari egiten dion ekarpena eta BPGa bera pandemia-aurreko mailetara irits daitezen ahalik eta lasterren.

Bestalde, azaldutakoaz gain, erregulazio orokorra erantsi da, eta, horrela, sektore publikoak mota honetako ondasunak errentan hartzeari esker, kultura-ondarea handitu ahal izango da. Ondorioz, funtsezko mekanismo bat egokituko da, artelanak sortzeko eta merkaturatzeko jarduera dinamizatzen laguntzeko, noiz eta, pandemiaren ondorioz, hain konplexua den une honetan. Modu horretan, aurrera egiten da maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuak ezarritako bidetik. Hain zuzen ere, araubide horren bitartez, kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartu ziren, COVID-2019aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera. Araubide horrek, lehen aldiz, espainiar arte garaikidea eskuratzeko aparteko zuzkidura ezarri zuen. Horrela, arte garaikidearen barne-merkatua bultzatu nahi zen, eta, gainera, arlo horri zenbateko espezifiko bat eman zitzaion, Arte Ederren Zuzendaritza Nagusiak Estatuko bilduma publikoetarako artelanak erosteko urtero betearazten duen gainerako aurrekontutik berezia.

Alde horretatik, Konstituzio Auzitegiak ontzat jotzen du neurri ekonomikoak errege lege-dekretuen bidez hartzea, baldin eta esplizituki eta arrazoituz justifikatzen badira bai beharrezana (hau da, egoera ekonomikoak erantzun azkar bat eskatzea) eta bai presa (hau da, neurri horiek arauzko bide arruntaren bidez izapidetzeko denboran atzeratzeak kalteren bat ekartzeko arriskua izatea).

Aurrekoarekin bat etorriz, maila honetako artelan-bilduma bat izateko aukerak (bilduma Museotik atera gabe eta, horrela, Museoaren posizioa eta Museoak kulturari zein susperraldi ekonomikoari egiten dion ekarpena ziurtatuz) errege lege-dekretuaren mekanismoa erabiltzea ahalbidetzen du. Alde horretatik, ez da ahaztu behar Thyssen-Bornemisza bilduma eskuratzeko ere tresna horretara jo zela, ekainaren 18ko 11/1993 Errege Lege Dekretuaren bidez. Era berean, osasun-krisiaren hasieratik Gobernuak



mobilizatutako laguntza publiko eta pribatuekin jarraitzeak eta horiek indartzeak —orain kultura-sektoreari laguntzera bideratuta daudenak, eta, zehazki, artelanen barne-merkatuaren ekoizpenari eta dinamizazioari, eta, beraz, artistei berei bideratuta daudenak— guztiz justifikatzen du presako legeriara jotzea; izan ere, neurri espezifikoak ezarri dira osasun-krisiak sortutako salbuespenezko egoerak eragindako premiei erantzuteko; ekonomia- eta gizarte-eragileei babesa eman zaie, krisiaren eragina ahalik eta txikiena izan dadin; eta susperraldi ekonomikoa ahalbidetu da, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko.

Estatuak Carmen Thyssen-Bornemisza bildumari bermea emateari dagokionez, gainera, premiaren arrazoia da berehalako eta prozeduraren luzamendurik gabeko ziurtasuna eta segurtasun juridikoa eman behar zaiola artelanak aseguratzeo araubideari, hartara, behin kontratua sinatuta, ez dadin denbora-tarterik egon sinatzen denetik hasi eta bermea formalki ematen den arte, zeren, bestela, tarte horretan artelanek ez baitzuten inolako estaldurarik izango.

Bestalde, apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua aldatzeari dagokionez, gogorarazi behar da osasun-krisiaren ondorioz eten egin zela kirol-jarduera profesional eta ez-profesional oro, eta horrek, beste jarduera-eremu batzuetan bezala, murriztu egin zituela lehiaketan antolatzaileen finantzaketa-bideak. Osasun-egoera normalizatu izanari esker, berriro ekin ahal izan zaio kirol-jarduerari, baina, kirol profesionalen kasuan, ikusle kopuru mugatuarekin edo batere ikuslerik gabe. Murrizketa horiekin, bere horretan mantendu da kirol-lehiaketak eta -jarduerak finantzatzeko baliabideen muga.

Testuinguru horretan, futbola, Espainiako kirolaren eragile handienetako bat, eta Espainiako gainerako kirolekiko trazio-gaitasuna duena, funtsezkotzat jo zen kirol-arloko ekonomia-ehuna berreraikitzeo. Tokioko Olinpiar Jokoen aurretik kirol federatua, olinpikoa eta paralinpikoa finantzatzen eta egonkortzen laguntzeko asmoz, apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua aldatu zen, Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez. Araubide horretan, futbolak gainerako kirolei ekarpen solidarioa egingo ziela adierazi zen, hartara, une kritikiko batean, futbolak sortutako baliabide pribatuak kirol-politika publikoetara transferitu ahal izateko.

Apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuak, halaber, bere egin zituen Vianako Itunean jasotako 2020ko apirileko erabakiak, Futbol Profesionaleko Liga Nazionalaren, RFEFren eta Kirol Kontseilu Gorenaren artean adostutakoak. Horren helburua zen RFEFk antolatutako futbol-lehiaketei jasangarritasun-aukera handiagoa ematea. Horretarako, apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua aldatzea erabaki zen, haren aplikazio-eremua zabalduz: ez soilik Lehen eta Bigarren Mailako Liga Txapelketa Nazionalera, baizik eta, aurreikusita zegoen moduan, baita Errege Kopara eta Espainiako Superkopara ere, eta RFEFk antolatutako Estatu-mailako gainerako lehiaketetara, izan gizonetzkoenak zein emakumezkoenak. Horrela, ikus-entzunezko eskubideak modu bateratuan merkaturatzeko ahalmen berriak esleitzen zaizkio Federazioari.

Alabaina, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) ikusi zuen erreforma hori ez zela erabatekoa izan: errege lege-dekretuaren aplikazio-eremuan sartutako ikus-entzunezko eskubideak modu bateratuan merkaturatzeko ahalmenak —RFEFk antolatutako gainerako lehiaketei dagozkienak— baliatu ahal izateko, alde aurretik, klubek eskubide horiek RFEFren laga behar dizkiote; eta araudiak ez du jasotzen ahalmen horiek nahitaez laga behar direnik, lehen aipatutako gainerako lehiaketetan ez bezala. Hori dela eta, orain arte, RFEFren emankizun-eskubideen kudeaketa zentralizatua ezin izan da aurrera eraman, eta horrek eragin larria izan du bai Federazioaren beraren baliabideen kudeaketan, bai lehiaketaren balioan. Beraz, dagokion doikuntza egin behar da, modu ezohiko eta presakoan, hartara saihestu ahal izateko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretua ezin aplikatzeak RFEFk antolatutako lehiaketen emankizun-eskubideen kudeaketan eragin dituen distortsioak.

Arau-esparru egonkor bat eskaintzea da aldaketa hori modu ezohiko eta presakoan onartu behararen arrazoia; izan ere, arau-esparru horri esker, eskubide horien salmenta zentralizatuan parte hartzen duten operadoreei segurtasun juridikoa emango zaie, eta

horrek aukera emango dio RFEFri produktu oso bat eskaintzeko, eskubideen merkatuko balioa areagotuko duena. Ez da ahaztu behar baterako komertzializazioan lortzen diren zenbatekoak lehiaketaren baldintzak hobetzeko inbertsioetara bideratuko lirakeela.

Gainera, kontuan hartu behar da RFEFk antolatutako lehiaketak laster hasiko direla, datorren irailean hain zuzen ere. Beraz, eskubide horiek merkaturatzeko prozesua behar adinako denbora-tartean egin behar da, operadoreek eta Federazioak modurik onenean kudea dezaten, lehiaketa egiteari eta ustiatzeari dagokienez. Aldaketa hori egingo ez balitz, kirol-arloko ekonomia-ehuna berreraikitzeari dagokionez (hori izan baitzen apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren helburua), ondorioak oso kaltegarriak izango lirakeke bai Federazioarentzat, bai Federazioak antolatutako lehiaketetan parte hartzen duten klubentzat.

Aurrekoa eragotzi gabe, apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretua lege-proiektu gisa izapidetzen ari da Gorte Nagusietan, Diputatuen Kongresuak baliozkotu ondoren; izan ere, haren egungo izapidetze-egoerak eragotzi egingo luke egin nahi diren aldaketak indarrean egotea denboraldi berria hasi baino lehen.

Edonola ere, errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako premia judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mende dago, eta horiek Gobernuari dagozkie (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehen tasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 14/2020 epaia, urtarrilaren 28koa), kasu honetan, kulturaren eta kirolaren esparruetako neurrietan oinarrituta eta, era berean, susperraldi ekonomikora ere bideratuta. Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiek frogatzen dutenez, errege lege-dekretu hau onartzeak ez du esan nahi, inolaz ere, aipatutako konstituzio-tresna abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa; 237/2012, abenduaren 13koa, 4. oinarri juridikoa; 39/2013, otsailaren 14koa, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azaldutako arrazoi guztiek luze-zabal eta arrazoituta justifikatzen dute arau hau onartzea.

Errege lege-dekretu honek, gainera, ez du eraginik izango Estatuaren oinarriko erakundeen ordenamenduan, Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunderi buruzko zuzenbide orokorrean. Zehazki, futbol profesionaleko lehiaketen ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzeari dagokionez, araututa dago, eta, premia larriko arrazoiak direla-eta, aldatu egin da iraganean, arau-tresna honen bidez. Nolanahi ere, orain erregulazio horretan sartzen diren doikuntzek ez diete eragiten jabetza pribatuko eskubidearen modalitate horren «edukiari edo funtsezko elementuei» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 111/1983, ekainaren 2koa, 4. oinarri juridikoa; 139/2016, uztailaren 21ekoa, 6. oinarri juridikoa), eta ez da errege lege-dekretua erabiltzen hura osatzen duten «ahalmen-sorta zehazteko» edo «haren funtzio soziala definitzeko» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 93/2015, maiatzaren 14koa, 13. oinarri juridikoa; 16/2021, urtarrilaren 28koa, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, modu puntualean aldatzen da futbol-lehiaketen ikus-entzunezko eskubideak merkaturatzeko araubide orokorra, apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuak ezarritakoa. Izan ere, errege lege-dekretu horren azalpen-zatian gogorarazten den bezala, merkaturatze bateratuaren ereduaren alde egiten du, sektoreak bere burua arautzeko dituen zailtasunengatik; era berean, taldeei beren eskubideak merkaturatzeko ahalmenak lagatzeko betebeharra ezartzen die; eta diru-sarrerak banatzeko sistema ezartzen du, zati bat interes orokorreko helburuetara bideratzeko. Oraingo aldaketak araubide hori aplikatzen die hasieran sartu ez ziren lehiaketei, eta horretara mugatzen da, zenbait berezitasun gehituz diru-sarrerak banatzeko irizpideetan, eta ekarpen solidarioaren xedea zehaztuz futbol amateurraren garapenerako. Errespetatu egiten dira, beraz, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan errege lege-dekreturako ezartzen diren mugak.

## IV

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean erregulazio onaren printzipioak ezartzen dira: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Eta errege lege-dekretu honek printzipio horiei erantzuten die.

Horren ildotik, dekretuak premiaren eta eraginkortasunaren printzipioak betetzen ditu; izan ere, ezartzen diren neurrien oinarrian herritar guztien interesa dago, eta bilatutako helburuak ere identifikatu dira; horrenbestez, errege lege-dekretua da hori lortzeko tresnarik egokiena.

Errege lege-dekretua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar-beharrezkoak diren arauak baizik ez baititu ezartzen. Era berean, bat dator segurtasun juridikoaren printzipioarekin, koherentzia du gainerako ordenamendu juridikoarekin, eta segurtasuneko araugintza-esparru bat sortzen du, erraztasunak emango dituen araua ezagutzeko eta, ondorioz, ukitutako administrazioek, pertsonak eta enpresek jarduteko eta erabakiak hartzeko. Gardentasun-printzipioari dagokionez, araua salbuetsita dago kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak betetzetik, errege lege-dekretuak izapidetzeko eta onartzeko ez baitira aplikatu behar.

Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu honek bere helburuak lortzeko beharrezkoak diren administrazio-kargak ezartzen ditu.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.2 artikuluan xedatutakoaren babesean ematen da. Artikulu horrek xedatzen duenez, autonomia-erkidegoek beren gain hartzen dituzten eskumenei kalterik egin gabe, Estatuak egin behar eta funtsezko eskumenzat hartuko du kulturaren zerbitzua. Era berean, Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 13., 18. eta 28. puntuetan xedatutako eskumen-tituluei ere erreparatu zaie errege lege-dekretua emateko.

Horregatik guztiagatik, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua baimenaz baliatuta, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak eta Kultura eta Kiroleko ministroak proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2021eko uztailaren 13ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Espainiako Ondare Historikoaren ekainaren 25eko 16/1985 Legea aldatzea.*

Beste xedapen gehigarri bat eransten zaio Espainiako Ondare Historikoaren ekainaren 25eko 16/1985 Legeari, hamargarrena; eta honela geratzen da idatzita:

«Hamargarren xedapen gehigarria. *Sektore publikoko entitate jakin batzuek Espainiako ondare historikoa osatzen duten ondasun higigarrien bildumak errentan hartzea.*

1. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) 3. artikulua arabera administrazio publikoak ez diren eta botere esleitzaitzat hartzen diren sektore publikoko entitateek Espainiako ondare historikoa osatzen duten ondasun higigarrien bildumak errentan hartzea, erosteko aukerarekin edo gabe, kontratu pribatutzat hartuko da, baldin eta Espainiako Ondare Historikoko Ondasunen Kalifikazio, Balorazio eta Esportazio Batzordeak edo autonomia-erkidegoetako organo baliokideak salbuespenezko interesa aitortu badie, eta azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 26. artikuluan xedatutakoaren arabera prestatuko eta esleituko dira.



Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko zaizkie, oro har. Hala ere, kontratua erregulazio harmonizatuko kontratutzat hartzen denean azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitakoaren arabera, lege horren 26.3 artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaio, kontratazioaren arrazionalizazio teknikoari buruzko arauak izan ezik. Halaber, ez da nahitaezkoa izango betearazpen-baldintza bereziak ezartzea, baina, gehitzekotan, kontratuaren xedeari lotuta egon beharko dute, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 145.6 artikulua zentzuan; ez dira diskriminatzaileak izango zuzenean edo zeharka, Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bateragarriak izango dira, eta kontratazio-espeditentean adieraziko dira.

Hala ere, ez dira aplikatzekoak izango azaroaren 8ko 9/2017 Legearen manu hauek:

a) 29. artikulua, kontratuen iraupenari eta prestazioa emateari buruzkoa. Kontratu horietan, iraupena 15 urtekoa izango da gehienez.

b) Sektore publikoko entitateen kontratuen prezioak berrikusteari buruzko I. liburuaren III. tituluko II. kapitulua, bai eta Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legean xedatutakoa ere.

Xedapen honek aipatzen dituen kontratuetan, salbuespenez, iraupena 5 urtetik gorakoa denean, prezioa aldizka eta aurrez zehaztuta berrikusi ahal izango da urtero. Berrikuspen horrek ez du inola ere ekarriko dagokion urteko kontsumoko prezioen indizea baino handiagoa den errenta-igoerarik.

c) Ordainketa-baldintza berezietan buruzko 198.4 eta 210.4 artikulua.

Era berean, errentaren urteroko bakoitzaren ordainketa aldeztatik egin ahal izango da, eta ezin izango da beste baldintza gehigarriarik eskatu.

Kontratuaren ondorioei eta azkentzeari buruzko eztabaidak batzorde misto batek ebatzi ahal izango ditu. Batzorde hori errentatzaileen eta sektore publikoko entitate errentariaren ordezkariak osatuko dute. Hilabete igaro eta batzordeak akordioarik lortu ez badu, jurisdikzio zibilerara jo ahal izango da.

2. Ondasun horien errentamenduari publizitaterik gabeko prozedura negoziatua aplikatu ahal izango zaio, kontratua betearaztea soilik enpresaburu jakin bati agindu ahal zaion kasuetan, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 168.a) 2. artikuluan aurreikusita dagoen moduan, eta aldeztatik egiaztatuta ez dagoela alternatiba baliokiderik eta horretarako eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen direla, honako berezitasun hauekin azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoari dagokionez:

a) Kontratu horietan, administrazio-klausula partikularren agiriaren ordeztatik, kontratuaren klausulak ezarriko dira, hargatik eragotzi gabe kontratazio-organismoak dagokion espeditentea egin beharra, bai eta azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 336. artikuluan aurreikusitako txostena ere, erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan.

b) Ondasunen titulartasuna edo ondasunen erabilera lagatzea ahalbidetzen duen beste eskubide erreal baten titulartasuna egiaztatzeko, baita errentatzailearen gaitasun-betekizunak egiaztatzeko ere, zuzenbide pribatuko arau aplikagarriei jarraituko zaie. Kaudimena justifikatutzat joko da obren titulartasuna edo obren erabilera lagatzea ahalbidetzen duen eskubide erreal egiaztatzen denean.

c) Ondasun higigarrien bilduma titular batena baino gehiagorena den obra-multzo batek osatzen badu, guztiek batera parte hartu ahal izango dute lizitazioan, titulartasuna egiaztatu ondoren, enpresaburuaren elkarerik eratu beharrik gabe. Aurreikuspen bera aplikatuko da bilduma osatzen duten obren erabilera lagatzea ahalbidetzen duen beste edozein eskubideren titular bat baino gehiago dauden kasuetan.

Titular bakoitzak jarduteko gaitasun osoa izan beharko du, eta ez du kontratatzeke inolako debekurik izango.

Titularrek betebeharrak solidarioa izango dute, eta ordezkari bat izendatu beharko dute kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko, kontratua azkendu arte».

2. artikulua. *Estatuaren bermea ematea Thyssen-Bornemisza Bilduma SPF Fundazioari errentan emandako Carmen Thyssen-Bornemisza bildumako obrei.*

1. Carmen Thyssen-Bornemisza bilduma osatzen duten eta Thyssen-Bornemisza Bilduma SPF Fundazioari errentan ematen zaizkion artelanek Estatuaren bermea ematen zaie, Espainiako Ondare Historikoaren ekainaren 25eko 16/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian eta Espainiako Ondare Historikoaren ekainaren 25eko 16/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria garatzen duen azaroaren 15eko 1680/1991 Errege Dekretuan aipatutako eran, araudi horretan eta artikulua honetan aurreikusitako baldintzetan.

Estatuaren bermearen ondorioak errentamendu-kontratua formalizatzen den egunean hasiko dira, baldin eta, egun horretan, artelanak Thyssen-Bornemisza Bilduma SPF Fundazioan badaude; eta aipatutako ondorioak kontratua indarrean dagoen bitartean luzatuko dira. Bilduma osatzen duten obrak ez badaude Fundazioaren esku kontratua formalizatzeke unean, Fundazioari entregatzen zaizkion unean hasiko dira Estatuaren bermearen ondorioak.

2. Berme horren irismena, ondorioak, baldintzak eta hasierako mugak ekainaren 22ko CUD/664/2021 Aginduan ezarritakoak izango dira (hain zuzen ere, agindu horren bidez, Estatuaren bermea ematen zaie 425 obrari, Thyssen Bornemisza Museo Nazionalaren Bilduma Iraunkorrean erakuts daitezkeen), edo horretarako ematen den aginduan ezarritakoak.

Kontratuan jasotako obren hasierako balio indibiduala honako hau izango da: ekainaren 22ko CUD/664/2021 Aginduaren bidez emandako bermea dela eta, Thyssen-Bornemisza Bilduma SPF Fundazioak aurkeztutako Estatuaren berme-eskaeran agertzen dena edo horretarako eman dena.

3. Kontratuak barne hartzen badu agindu horretan jasotzen ez den eta aurretiaz Estatuaren bermearen xede izan den obraren bat, obra horren hasierako balio indibiduala honako hau izango da: zegokion ministerio-aginduak bere garaian emandako bermea zela eta, aurkeztutako eskaeran agertzen zena, edo, bat baino gehiago izan baziren, horietako azkena. Obra horien bermearen irismena, ondorioak, baldintzak eta hasierako mugak, era berean, berau eman zuen aginduan ezarritakoak izango dira, edo, bat baino gehiago izan baziren, azkenekoan ezarritakoak.

Kontratuaren barruan Estatuaren bermearen xede inoiz izan ez den obraren bat badago, Thyssen-Bornemisza Bilduma SPF Fundazioak dagokion aseguru-kontratua sinatuko du, eta modu horretan egingo da obra horri dagokion aseguruua, baina ez da bermearen barruan egongo. Kasu horietan, Fundazioak Estatuaren estaldura eskatu ahal izango du, 5. apartatuan aurreikusitako eguneratzea kontuan hartuta.

4. Modu honetan zehaztuko da bermearen hasierako balio ekonomiko osoa: 2. apartatuan aipatzen diren obren hasierako balio indibiduala gehi 3. apartatuko lehenengo paragrafoan aipatzen diren obren hasierako balio indibiduala.

5. Berme honek estalitako obren zerranda eta dagokien balio ekonomikoa, banakakoa eta guztizkoa, urtero eguneratu beharko dira Kultura eta Kiroleko ministroaren agindu baten bidez, Thyssen-Bornemisza Bilduma SPF Fundazioak ekitaldi bakoitzeko azken hiru hilabeteetan horretarako eskaera egin ondoren. Era berean, bermearen irismena, ondorioak, baldintzak eta mugak eguneratu beharko dira.

Eguneratze horrek, nolana ere, errespetatu egin beharko du Thyssen-Bornemisza Bilduma Fundazioari horretarako emandako konpromiso espezifikoaren gehieneko muga, Estatuaren Aurrekontu Orokorren urteko legeetan ezarritakoaren arabera.

6. Carmen Thyssen-Bornemisza bilduma osatzen duten artelanak Thyssen-Bornemisza Bilduma SPF Fundazioari doan lagatzen bazaizkio, ez da aplikatuko 2.

artikulu honetan xedatutakoa, eta ekainaren 25eko 16/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian eta azaroaren 15eko 1680/1991 Errege Dekretuan aurreikusitako araubide orokorra aplikatuko da.

3. artikulua. *Futbol profesionaleko lehiaketen ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzearekin loturiko urgentziazko neurrien apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Futbol profesionaleko lehiaketen ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzearekin loturiko urgentziazko neurrien apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua aldatzen da, honela:

Bat. Aldatu egiten da 2. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Estatu-mailako futbol-lehiaketa ofizial batean parte hartzeak berekin ekarriko du nahitaez titularrek errege lege-dekretu honen aplikazio-eremuan barne hartzen diren ikus-entzunezko eskubideen baterako komertzializaziorako ahalmenak ematea erakunde antolatzaileari.

Errege lege-dekretu honi dagokionez, eta kirol-legedi orokorrean onartzen diren eskumenei eragin gabe, honako hauek hartuko dira erakunde antolatzailetzat:

a) Futbol Profesionaleko Liga Nazionala, Lehen eta Bigarren Mailako Ligako Txapelketa Nazionalai dagokienez.

b) Espainiako Futboleko Errege Federazioak, Errege Kopari, Espainiako Superkopari eta futbol-modalitateko espezialitate guztietan antolatzen dituen Estatu-mailako gainerako lehiaketei dagokienez, bai gizonezkoetan bai emakumezkoetan, betiere lehiaketa horiek ez badira lehiaketa profesional deklaritzen. Lehiaketa profesional deklaritzen diren unetik aurrera, horretarako sortzen den Liga Profesionala izango da erakunde antolatzailea».

Bi. Aldatu egiten da 6.1. artikulua c) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«c) Ehuneko 2 Espainiako Futboleko Errege Federazioari emango zaio, futbol amateurra eta federazio-azpiegiturak garatzeko ekarpen solidario gisa, bai eta kategoría ez-profesionalen lehiakortasuna hobetzeko ere. Kantitate hori handitu ahalko da, Espainiako Kirol Federazioei eta Kirol Elkartearen Erregistroari buruzko abenduaren 20ko 1835/1991 Errege Dekretuaren 28. artikuluan aipatzen den hitzarmenaren esparruan. Ehuneko 2 horretatik, ehuneko 50 lurralde-esparruko federazioentzat izango da, lizentzia kopuruaren arabera, Gobernuak erregelamendu bidez zehaztutako helburuetarako eta hark ezarritako banaketa-irizpideen arabera. Gainerako ehuneko 50a Espainiako Futboleko Errege Federazioaren jarduerari aplikatuko zaie, espezialitate guztietan Espainiako futbol-selektzioak sustatzeko eta garatzeko, futbol amateurra sustatzeko eta beharrezkoak diren azpiegitura propioak hornitzeko, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan».

Hiru. Aldatu egiten da 8. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Espainiako Futboleko Errege Federazioak zuzenean merkaturatu ahalko ditu Errege Koparen eta Superkoparen ikus-entzunezko eskubideak, 4. artikuluaekin bat. Halaber, zuzenean merkaturatu ahal izango ditu, 2.2. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, Estatuan antolatzen dituen gainerako lehiaketak, gizonezkoenak zein emakumezkoenak, lehia- eta publizitate-araubidean, eta 4.5 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Espainiako Futboleko Errege Federazioak irizpide hauen arabera banatuko ditu Errege Koparen eskubideak merkaturatzetik eskuratzen dituen diru-sarrerak:

a) Diru-sarreraren % 60 Futbol Profesionaleko Liga Nazionalako taldeei bideratuko zaie, eta 5. artikuluan aurreikusitako arauekin bat esleituko dira. 5.3 artikuluan b) letrako 1. irizpidea aplikatzearen ondorioetarako, soilik hartuko dira kontuan azken bost denboraldietan lehiaketako final-zortzirenetan parte hartu duten entitateak, honela haztatuta: Txapelduna, % 22; txapeldunordea, % 16; finalurrekora heldu direnak, % 9; final-laurdenetara heldu direnak, % 6; final-zortzirenetara heldu direnak, % 2,5.

b) Gainerako % 40a futbol amateurra eta txapelketan parte hartzen duten beste kategoria batzuetako taldeak sustatzeko erabiliko da.

Espainiako Futboleko Errege Federazioaren baitan, kudeaketa-organo bat eratuko da, 7. artikuluan ezarritakoaren osaera berarekin, bi berezitasun izango dituena:

a) Futbol Profesionaleko Liga Nazionalaren presidentea Espainiako Futboleko Errege Federazioko presidentek ordeztuko du.

b) Bigarren B Mailako klub bat organoko kide izango da, kategoria horretako klubek edo sozietate anonimoek aukeratuta.

Organo horrek 7.1 artikuluko a), d), e) eta g) letretan aurreikusitako funtzioak izango ditu, Errege Kopari eta Espainiako Superkopari dagokienez.

Espainiako Futboleko Errege Federazioak klub edo entitate parte-hartzaileen artean banatuko ditu beste lehiaketetako bakoitza merkaturatzetik lortutako diru-sarrerak, haiek onartzen dituzten irizpideen arabera, gehiengoz eta merkaturatzearen xede den denbora-tarte osorako, Espainiako Futboleko Errege Federazioak horretarako sortuko dituen berariazko organoen esparruan.

Nolanahi ere, banaketa-irizpideen artean sartuko dira kirol-emaitzak, klub bakoitzaren eragin soziala, eta harrobiaren eta oinarri-futbolaren sustapena.

Klub bakoitzari dagozkion diru-sarreretatik, klub horiek, Espainiako Futboleko Errege Federazioaren bitartez, ehuneko 2,5 bideratu beharko dute konpentsazio-funts bat finantzatzera, eta funts horien onura jaso ahal izango dute baterako komertzializazioaren xede izan zen kategoriatik jaitzitako kirol-entitateek. Bestetik, ehuneko 3 bideratu beharko dute futbol amateurrerako eta hura behar bezala garatzeko beharrezkoak diren azpiegituretarako ekarpen solidario gisa.

Espainiako Futboleko Errege Federazioak honela banatuko du ehuneko 3 hori: ehuneko 1, federazio autonomikoei, emandako lizentzia kopuruaren arabera; ehuneko 1, merkaturatzearen xede den kategoriaren alde merkatu nazionalan eta nazioartekoetan egindako sustapenari; ehuneko 1, absolutuak ez diren kategorietako espainiar selekzioei eta Federazioaren berezko azpiegiturei».

Azken xedapenetako lehenengoa. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.2 artikuluan ezarritakoaren arabera ematen da; hain zuzen ere, artikuluko horrek dioenez, autonomia-erkidegoek eskumenak beren gain hartu ahal izango dituztela alde batera utzi gabe, Estatuak egin behar eta funtsezko eskumentzat hartuko du kulturaren zerbitzua. Era berean, Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluan 13., 18. eta 28. puntuetan xedatutako eskumen-tituluei ere erreparatu zaie; hain zuzen ere, aipatutako xedapen horiek eskumen eskusiboa ematen diote Estatuari, honako gai hauei dagokienez: jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; kontratuei buruzko oinarritzko legeria; eta Espainiako ondare kultural, artistiko eta monumentalaren babesa, esportazioaren eta espolioazioaren kontra.

Azken xedapenetako bigarrena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Gobernuari baimena ematen zaio errege lege-dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Indarrean jartzea.*

1. Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2. Xedapen honen 3. artikulua bidez apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuan egindako aldaketak (5/2015 Errege Lege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Futbol profesionaleko lehiaketen ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzearekin loturiko urgentziazko neurriena) errege lege-dekretu horren 1. artikuluan aipatutako ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzeko kontratuei aplikatuko zaizkie, baldin eta errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera egiten badira kontratuok.

Madriren, 2021eko uztailaren 13an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN